

2011ko urriaren 17a, Pobrezia Ezabatzeko Nazioarteko Eguna

2008an, EAEn, 35 urtetik beherakoak familiako buru zituzten etxeetan bizi ziren hamar lagunetatik bat pobrezian zegoen.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak 2008an egindako azkeneko [Pobrezia eta gizarte-desberdintasunei buruzko inkesta](#)ren datuetan oinarrituta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#), datuak adin-taldeka aztertu eta gero, zera ondorioztatu du: EAEn bizi direnen %4,7 mantentze-pobrezian edota metatze-pobrezian erortzeko arriskuan bizi direla. 35 urtetik beherakoak familia buru dituzten etxeetan bizi direnen artean, ehuneko hori %10,9raino heltzen da.

Mantentze-pobrezia honetan datza: epe laburrean oinarritzko beharrak (batik bat elikadura, etxebizitza, arropa eta oinetakoekin zerikusia dutenak) asetzeko gastuei aurre egiteko behar adinako baliabide ekonomikorik ez izatea. Metatze-pobrezia etxegune baten ezintasunarekin erlazionatzen da, epe luzean bizi-maila gutxi edo asko egoki bat mantentzeko beharrezko diren kontsumo-ondasun iraunkorrek eskuratu ahal izateko ezintasunarekin. Hau da, mantentze-pobrezia eskura dagoen errentari dagokio; metatze-pobrezia, ordea, ondareari eta bizi-baldintzei.

Bestalde, mantentze-pobrezia norbanakoaren ikuspuntutik hurbilduz gero, zera azpimarratu behar da: pobrezia eta prekaritatea aztertzerakoan, norbanako bakoitzak betetzen duen tokia bere diru-sarrera pertsonalen arabera aztertzen bada, hau da, familia osatzen duten gainontzeko lagunenak kontuan hartu gabe, bakarrik eta independizatuta bizi diren 25 urtetik beherakoen artean (ikasleak kenduta), pobrezia-egoerak ia erdiari eragingo lioke (%47,6), eta 25 eta 34 urte bitarteko adina dutenen hamar gaztetik hiruri (%30).

Datu horiek adierazten dutenez, gazteen multzo handi bat estalitako pobrezia-egoeran bizi da, eta kolektibo horretan pobrezia-tasak garaiagoak ez izatea, familiek (adiera zabalean ulerturik) gazteei ematen dieten babesari esker dela, bizitza independenteari aurre egiteko nahikoa diru-sarrera ez edukitzeak dakartzan pobrezia-arriskuak ekidite aldera.

Gainera, kontuan hartu behar da datuok 2008koak direla, krisialdi ekonomikoa hasi zen urtekoak. Datorren *Pobrezia eta gizarte-desberdintasunei buruzko inkesta* 2012rako aurreikusten da, eta emaitza negatiboagoak izango ditu, seguruenik. Izan ere, aintzat hartu behar da [langabezia-tasak](#) gora egin duela nabarmen 2008tik 2010era: %7,3tik %18,4ra igaro da 30 urtera arteko gazteen kasuan eta %3,8tik %9,2ra, biztanleria osoaren kasuan.